

Kultura

Elorrioko Trikitilari Gazteen II. Txapelketan
bederatzi bikotek parte hartuko dute bihar > 12

JAIK!

ZALDIBAR

Dozenaka gazteren inizatibaz, gaztetxea aurrera doa, Tabiran

Joan zen zapatuan, Fundifes fabrika zaharreko bulegoak okupatu zituzten hainbat gaztek, gaztetxe bihurtzeko asmoz. Espazioa antolatzen dabiltza.

Gogoa, ilusioa, inizatiba... Sentsazio horien berri eman dute Iratxe Delgadok eta Anes Bañosek, Tabirako gaztetxeko kideek. Duela urtebetetik gazteentzako espazio bat eskatzen ibili dira hainbat gazte, baina udalak ez die soluziorik eman. Ondorioz, okupatzea erabaki, eta Fundifes bihurtu dute gazteen topaleku. Joan zen zapatutik auzolanean ibili dira, eta nabarmentzekoa da neskak direla gehienak. Delgadok eta Bañosek gaztetxera hurreratzeko deia egin dute, espazioa, elkarlanean, ekimenez betetzeko. Eraikinaren jabeekin, ostera, akordio batera heldu gura dute. >4

“Oraindik asko erakutsi behar dut”

Denboraldiko zati handi bat lesionatuta eman ostean, Gorka Iturraspek gol garrantzitsuak sartu ditu, Athletic B-ri Bigarren Mailara igotzeko balio izan dion playoffean. > 15

Lehior Elorriaga

L.E.

hitz #gomendioak
liburudenda
artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

 HELDUENTZAT MANUKORTA BERTSONAJEA Xabier Amuriza (2014)	 UME ETA GAZTEENTZAT EUSKAL MITOLOGIA, HAURRENTZAKO IPUINAK Atxulekro, Zubialde eta Egurza (2015)	 MUSIKA REAL WORLD 25 Askoren artean (2014)
---	--	--

**katerin
ardoak
iñaki
uribe**

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Durangaldea > 2

Ume saharaiak Durangaldera iritsi dira, uda pasatzera

Durango > 4

Etxebakoen ostatua zabaltzeko erakundeen laguntza eskatu dute

Iurreta > 6

Belakortu zerrategia eraisteko lanei ekin diete asteon

Abadiño > 9

Anbotoko buzoiairen mendeurrena gogora ekarriko dute asteburuan

Herririk herri



Guztira, 25 monitore boluntario ibiliko dira lanean, abuztu amaieran gazte saharauiak Tindufeko kanpalekuetara itzuli arte.

15 ume saharauik “liluratuta” hasi dituzte Atxondoko udalekuak

Hamadako Izarrak elkartearen bidez, Axpeko aterpetxean emango dute uda

ATXONDO J. Derteano

Gero eta familia gutxiago dira udan gazte saharauiak hartzeko prest daudenak. Beherakada horri aurre egiteko, Hamadako Izarrak elkartea sortu dute harriera familia izandako batzuek, eta, eurei esker, hamabost gazte saharauik Atxondoko Axpe auzoko aterpetxean emango dute uda.

Gazteek 10 eta 12 urte artean dituzte. Bi ez beste guztiak aurreneko etorri dira; euren bizitzan lehenengoz irten dira Tindufeko (Aljeria) kanpalekutik, eta, normala den moduan, berria egiten zaie: “Atzo mendiei begira-begira egon ziren, ikararuta lez. Gaur, igerilekura joan gara, eta liluratuta geratu dira. Datorren astean, Laidako hondartzara joango gara, ka-noan ibiltzera, eta euren bizitzan lehenengoz itsasoa ikusiko dute”, adierazi du Hamadako Izarrak elkarteko Garazi Etxebarriak, gazteen lehenengo erreakzioak gogora ekarrita.

Atxondoko Udalak utzitako aterpetxean hilabete bi emango dituzte: “Udala oso ondo portatu da gugaz”, esan du. Amankomunazgotik, eta Berriz, Iurreta, Durango, Abadiño eta Mañariko udaletatik laguntza jaso du elkartek. Horregaz batera, norbanakoen aldetik jasotako laguntza azpimarratu du Etxebarriak: “Atxondoko okindegi batek ogia ekartzen digu egunero, Mañariko elizak aulkiak utzi dizkigu, Durangoko bikote batek guretzat beren beregi pintatutako esne kantin bat erregalatu digu, eta Gasteizko lagun batek umeentzako koltxoi guztiak erosi dizkigu”. Gainera, inguruko eskoletan arropa eta bizikletak batzeko kanpaina abiatu zuten, eta ume guztientzako bizikletak lortu dituzte.

Irteerak eta osasun arreta

Udalekuekin hainbat helburu bete gura dituzte. Batetik, gazteen osasun egoera zein den ikusi gura dute: “Batek asma

du, beste batek giltzurrunetako arazoa... Mediku, okulista eta dentistarengana eramango ditugu. Horregaz batera, elikadura zainduko diete, ahalik eta orekatuena izan dadin.

Udalekuen beste helburu bat hemengo kultura eta tokiak ezagutzeko aukera eskaintzea da, bai eta euren adin bertsuko gazteekin hartu-emanak sustatzeari ere. Biharko irteeraz gainera, Otxandiko abentura parke- ra, Kortezubiko Basondora, eta Bilboko zein inguruko jaietara ere joango dira.

Urteroko ekimena

Aurten hasitako udalekuei datorren urtean jarraipena ematea da asmoa. Gazteak heldu ziren egunean, Loiuko aireportuan, beste elkartetako jendea ezagutzeko aukera izan zuten: “Gure ekimenarekiko interesa erakutsi zuten, eta, udalekuak amaitzen direnean, hainbategaz batzeko asmoa dugu, gure esperientziaren berri emateko”.

Urritasuna duten 11 ume saharaui daude Izurtzan

Río de Ororen ekimenaren bidez, astean etorri dira

IZURTZA J.D.

Tindufeko (Aljeria) desertuan kokatutako errefuxiatuen kanpalekuetan bizi diren hamaika ume saharauik Izurtzako aterpetxean emango dute uda. Ume horiek urritasunak dituzte. Asteon etorri dira Río de Oro ekimenari esker, eta abuztu amaieran joango dira.

Aurten 6-12 urteko gazte- txoak etorri dira, eta horietatik zortzi inoiz etorri bakoak dira,

kanpalekuetatik sekula irten gabeak. Errepikatuko dueneko bat Mohamek Yahya izango da; iaz, bihotzeko ebakuntza larria egin zioten Gurutzeta ospitalean, eta, aurten, kardiologia zerbitzuak bere egoeraren jarraipena egingo du, hemen dagoen artean. Gainerakoan, gaztetxoek autonomia sustatzera bideratutako ekintzak eta askotariko irteerak egingo dituzte.



Izurtzan dauden gaztetxoak eta Río de Oroko kideak.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko uztailaren 3a,
13. urtea - 596. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
Itxaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Arenaza
Yarza, Amaia Huarte Basabe.

Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onandia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga Egidazu.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



“Jabeek ez dute mehatxutzat hartu gu hemen egotea”

Hainbat gaztek Tabirako Fundifex fabrika zaharreko bulegoak okupatu dituzte

DURANGO Markel Onaindia Duela urtebete, ‘Baguez gure espazio bile’ dinamikan batu ziren Iratxe Delgado (1994) eta Anes Baños (1995), beste hainbat gazte gazte batera. Udalari espazio bat eskatu zioten, baina, erantzunik ez dute jaso, eta, joan zen zapatuan, Fundifex fabrika zaharreko bulegoak okupatzea erabaki zuten. Fundifexeko beharginak dira eraikinaren jabeak, eta gazteek eurek akordio batera heldu gura dute. Lehengo Sapuetxe gaztetxearen proiektua aldatu denez, Tabiran dago gaur egun Durangoko gaztetxea.

Zergatik aukeratu duzue okupazioaren bidea?

Anes Baños: Urtebete, udalitik ez dira ezertarako hurbildu, ez dute erakutsi gazteengana ardurarik. Gure eskaeraren aurrean, erantzun bat eman beharko lukete.

Iratxe Delgado: Arazo horiei aterabiderik ematen ez bazaie, guk zer baliabide dugu?

Zelan konpondu zarete eraikinaren jabeekin?

I.D.: Eraikina abandonatuta zegoen, hutsik, eta arazoak ekarri ditu. Gu egoteak ekarpen positibo bat egiten duela uste dugu. Jabeek ez dute mehatxutzat hartu gu hemen egotea. Ez da euren kontrako ezer.

Udaltzainak sartu zirenean, identifikatutako lehen gazteak izan zirenen. Zelan, geroztik?

A.B.: Jakin dugu ez daukagula salaketarik, eta horrek asko lasaitu gaitu. Udaltzainak eta ertzainak une oro dabilta bertatik pasatzen, eta horrek bai sortzen du egonezin apur bat.

Dozenaka gazteren inizatiba nabarmendu duzue.

A.B.: Ikaragarria izan zen ordubetean lehenengo bi pisuak ia osorik garbitu izana. Bagenekien lana gogorra izango zela, baina jakin dugu eramaten. Gainera, auzolanaz aparte, gauez kontzertuak, bertso saioak eta jokoak eskaini ditugu.

I.D.: Lehen egunean, sekulako poza hartu nuen. Jendea hain konbentziturik ikusten nuen... Aspaldi ez genuen sentitzen denok bat ginela. Bestalde, gauza txikiekin asko ikasi dut. Adibidez, atzo pertsianak konpontzen egon ginen, eta gutako inork ez du hori inoiz egin. Gure arteko zaintza ere polita izan da.

Duela hamarkada biko okupazioetan ez bezala, gehiengo handia neskak zarete.

A.B.: Ohartu barik gertatu den zerbait izan da, baina uste dut positiboa dela. Batzarretan, gehienak neskak ginen, baina, okupatzeari, kopurua handitu egin da. Lehenago, gaztetxei lotutako mugimendua maskulinoagoa zen, genero zein jarrera aldetik.

Ateak zabalik daude?

I.D.: Hurbildu diren guztiei eskerrak eman gura dizkiegu, eta etorri ez direnak gonbidatu nahi ditugu. Eragileen beharrianak ere ezagutu gura ditugu espazioa antolatzeke.



Delgado eta Baños, okupatutako eraikinaren aurrealdean.



Gazteek prentsaurrekoa eman zuten, eguaztenean.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

mpeg

lanerako gertu!

20152016

Matrikula

uztailaren 16tik 21era

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

www.mondragon.edu/ogh
info.enpresagintza@mondragon.edu
943 71 80 09

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 73 97 65



56.000 euroko soldatagaz jarraituko dute udaleko liberatuek

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak liberatuen soldata murriztea gura zuten



Durangoko osoko bilkuran, martitzenean, PSE-EEko Pilar Ríos alkateorde karguan.

DURANGO M. Onaindia
Durangoko Udalean liberatuko diren zinegotziek, urteko 56.000 euro kobratzen jarraituko dute, martitzeneko osoko bilkuran EAJk, PSE-EEK eta PPK mo-

zioan onartu eta gero. Alkateaz aparte, talde bakoitzetik bat liberatuko da lanaldi osora. EAJk eta PSE-EEK Eudelen oinarriak hartu dituzte kontuan soldatak proposatzerakoan. Horrela, au-

rreko agintaldiko kopurua mantenduko dute. PPK ere proposamen hori babestu du, aldatzeko beharrik ez duelako ikusten.

Baina ez dira iritzi berekoak EH Bildu eta Herriaren Eskubi-

dea. Ion Andoni del Amok (EH Bildu) adierazi zuen gaur egun soldata horiek “iraingarriak” direla, eta, horren aurrean, soldata “justu eta duina” eskatu du: “Justua guretzat eta herriarrentzat”. Administrari baten soldata oinarria proposatu zuen, 36.000 euro, eta liberazio kopuruak ordezkartzaren arabera ezartzea ere bai.

Julián Riosek (Herriaren Eskubidea), oster, soldatak %50 bajatzea proposatu zuen. Bere arabera, modu horretan urtean 150.000 euro aurreztuko lituzke udalak. Durangoko liberatuek Madrilgo eta Bartzelonako alkateek baino gehiago kobratuko dutela kritikatu zuen. Manuela Carmenak 45.000 euro kobratuko ditu Madril, eta Ada Colauk 37.000 Bartzelonan.

Liberazioa, tresna

Pilar Riosen (PSE-EE) ustez, ezarritako soldatak ondo daude, eta gogoratu zuen liberazioak alderdien lanerako tresnak direla. Goiztidi Diazek (EAJ) EH Bildu kritikatu zuen, urteak atzera, ezker abertzalea udaleko liberazioen kontra zegoelako.

Gorka Frailearen lehen emaitzak positiboak direla esan du medikuak

DURANGO M.O.

Gorka Fraile preso politiko durangarrari ebakuntza egin zioten duela hiru aste, minbizi minbizia daukalako. Gongoilak aztertzen ibili da Badajozeko ospitaleko medikua, eta, esan duenez, lehen emaitzak baikorrak dira, gongoilak garbi daudelako. Emaitza hori bere mediku taldeagaz aztertu behar duela azaldu du, baina, ezusteko handirik ezeean, baliteke Frailek erradioterapia hartu behar ez izatea. Fraile Badajozeko (Espainia) kartzelan dago orain.

Ebakuntza egin aurretik Frailek poliziaren partetik jasotako tratua salatu zuten senideek. Esku-burdirak ipinita egon zen, eta poliziari zarataka ibili zitzaizkiola salatu zuten. Tratua giza eskubideen kontrakoa izan zela ohartarazi zuten Sare mugimenduak.

Administrazioen laguntzen zain, etxebakoen ostaturia zabaltzeko

Caritasek duela urtebete zabaldu zuen Etxepel; momentuz, eguneko zentroa da

DURANGO M.O.

Caritasek ez dauka administrazioen laguntzarik etxebakoen ostaturia zabaltzeko. Duela urtebete Etxepel zentroa zabaldu zuten Durangon –momentuz, eguneko zentro lez soilik funtzionatzen du–, Intxaurondoko Jesusen Mirabeen komentu zaharrean. Urte honetan, 22

pertsonari eman diete laguntza. Gaua pasatzeko ostaturia soziala zabaldu gura dute, baina administrazioen laguntza ezinbestekoa dela azaldu dute. Oraingoz, laguntza horren zain daude.

Intxaurondoko Etxepel egitasmoa Caritasen diruagaz, fundazio biren ekarpenagaz, eta parrokiaren eta herriarren

laguntzagaz bakarrik dabilta garatzen.

Gizarteratzen laguntzea

Durangaldean urte luzez bizi diren 22 lagunek jaso dute Etxepeleko kideen laguntza eta babesa. Une honetan, hemeretzi dira eguna bertan pasatzen dutenak. Atsedena, higiena eta aisialdia eskaintzen dizkiete. Adibidez, orain, txakur bategaz esperientzia terapeutiko bat dute martxan. Etxepelen helburua bazterkeria egoeran daudenei gizarteratzen laguntzea da.

Etxepelera joan diren 22 lagunetatik zazpi Europako Batasunetik kanpo etorritakoak dira. Alberto Estefanía Etxepeleko arduradunak esan du bederetzi erabiltzaile kalean bizi izan direla, eta egoera hori sei urtez bizi izan dute batzuek.

Beharizana badago

Estefanía adierazi du Etxepel zabaltzeko ideia Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaur-laritzaren ikerketek aholkatu zutela. Estefaniaren arabera, administrazio batzuek zentroaren beharrik ez zegoela esan zieten sorrera prozesuan. Baina, Estefaniaren ustez, urtebeteko balantzeak erakutsi du beharizana egon badagoela.



luz, Anbotoko Mariren kobatik gertu ateratako argazkiak irabazi zuen.

2016ko egutegirako irudi erakargarrienaren bila

Irabazleak 500 euroko saria jasoko du dirutan

DURANGALDEA J.G.

ANBOTOK 2016ko egutegirako argazki lehiaketa abiatu du. Durangaldeko hamairu herriak argazkiak aurkeztu beharko dira irailaren 30a baino lehenago. Argazkirik onena aurkeztu duenak 500 euroko saria lortuko du. Parte-hartzaileek herri bakoitzeko argazki bana aurkeztu beharko dute; Abadiñoko, Atxondoko, Berrizko, Durangoko, Elorrioko, Garaiko, Iurretako, Izurtzako, Mallabiko, Mañariko, Otxandioko, Zaldibarko eta Zornotzako argazkiak.

Argazkiak kamera digital bategaz egin beharko dira, eta JPG formatuan bidali behar-

ko dira, irailaren 30a baino lehenago. Irudiek, gutxienez, 4.000x2.800 pixeletako tamaina izan behar dute. Lan originalak aurkeztu beharko dira, eta ezingo dute beste lehiaketaren bateko saririk izan.

Zelan eta nora bidali

Argazkiak e-mailez edo CD batean aurkeztu behar dira, datu hauekin: argazki bakoitzaren izena (zer herriaren aterata dagoen zehaztuta), argazkilaria- ren izen-abizenak, NA zenbakia, helbidea eta adina. Bixente Kapanaga, 9, 48215 Iurretako edo astekaria@anboto.org helbideetara bidali behar dira lanak.



Estefanía eta Joseba Gaya, Caritasen etxebakoen arloko arduraduna.

EDERTASUN GIDA



Uda honetan, zelan zainduko dugu ilea?

Udan, ilearentzat kaltegarri izan ahal diren hainbat faktoregaz egiten dugu topo. Eguzkia, kloroa eta kresala dira horietako batzuk, eta komeni da ilea zaintzeko zer neurri hartu jakitea.

Eguzkia hartu aurretik...

Uda hasieran ilea zaintzeko geruza bereziak ematea aholkatzen dute adituek, baita ilea moztea ere. Horrela, ilea kalteu aurretik babestuko dugu.

Bitartean...

Udan kremak ematea komenigarria da, ilea indartzeko. Hondartzara edo igerilekura joatean, ordu birik behin gutxi gorabehera ematea aholkatzen dute adituek.

Gero...

Eguzkia hartu eta gero, ilea xanpu batez garbitzea da onena. Horrela, hareia, kresala eta kloroa kentzea erraztuko dugu.



ILE APAINDEGIAK



ESTETIKA ZENTROAK



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Batzordeak atzera bota dituzte EAJk eta Herriaren Eskubideak

EH Bilduk beste batzorde bi sortzea proposatu du orde bi sortzea proposatu



Udalaren osaketarako bilkura egin zuten ekainaren 13an.

ELORRIO Markel Onaindia Joan zen egunean, udaleko batzordeak osatzeko bilkura egin zuten, eta EH Bilduren proposamena atzera bota zuten EAJk eta Herriaren Eskubideak. Ber-

dintasun eta Turismo arloetarako batzorde bana sortu gura du gobernu taldeak, baina oposizioa ez dago ados. Beste bilkura batean berriro aztertu beharko dute gaia; momentuz, ez dago

horretarako datarik.

Zortzi batzordeetatik hamarrera pasatzea da EH Bilduren asmoa. Idoia Buruaga alkateak azaldu du aldaketak ez lukeela gastu gehiago ekarriko, eta ba-

tzorde berrien ideia babestu du. Bere iritziz, berdintasunaren gaia batzorde guztietan egon behar da presente zehar lerro lez, baina batzorde berezi bat sortzeak lan hori indartuko lukeela uste du. Berdintasun teknikariak begi onez ikusten duela esan du, gainera, Buruagak. Bestalde, “turismoari dagokion indarra” eman gura diotela nabarmendu du.

EAJren ikuspegitik, hamar batzorde lar direla esan du Joseba Mujikak, ez duela horren beharrik ikusten. Gainera, zortziko formula ere murriztu daitekeela uste du. Auzoei begirako batzordea Hirigintza Batzordean txertatu ahal dela ipini du adibide. Mujikaren iritziz, batzorde bien proposamena propagandarako erabili du EH Bilduk.

Herriaren Eskubidea alderdiko Juan Pedro Gallastegik batzordeen murrizketa babestu zuen, gastua aurrezteko eta batzordeen arteko koordinazioa hobetzeko balioko duelakoan.

“Udala martxan”

Buruagak adierazi du euren helburua “udala martxan ipintzea” dela. Horregatik, alkatearen liberazioari barik, batzordeen osaketari lehentasuna eman gura izan diote. Herritarrek batzordeetara joan ahalko dute.

Zengotitabengoa presoak dauzkan neurriak arintzea eskatu dute

ELORRIO M.O.

Eusko Legebiltzarrak Andoni Zengotitabengoa preso politiko elorriarrak Lisboako (Portugal) kartzelan dauzkan segurtasun neurriak arintzea eskatu du, EH Bilduk sustatuta. Giza Eskubideen Batzordean landu dute gaia, eta onartutako eskaera kartzelako zuzendariari, Portugalgo Gobernuari, Herri Defendatzaileari eta Lisboako Abokatuen Elkargoari bidaliko diete. Bere egoera giza eskubideen kontrakoa dela uste dute. EH Bilduk eta EAJk bat eginda onartu dute Legebiltzarreko testua.

Zengotitabengoak bakartuta pasatzen ditu eguneko 22 ordu. Gainera, senideen bisitak mugatuta dauzka, eta alabak urtean behin bakarrik ikusi ahal ditu aurrez aurreko bisitan. Urtean behin besarkatzen ditu, beraz. Presoaz gainera, familiari eta bereziki alabei eragiten dien egoera psikologikoa ohartarazi du Julen Arzuaga legebiltzarkideak.

Berrio-Otxoa eguna ospatuko dute, bihar

ELORRIO M.O.

Herriko patriaren eguna ospatuko dute bihar, Elorrioren: Berrio-Otxoa eguna. 08:00etan ekingo diete udalak eta hainbat elkarte antolatutako egitarauari, herriko ermitak zeharkatuko dituen ibilbide batez. 12:00etan, meza nagusia emango dute, basilikan, eta, 13:00etan, luntxa eskainiko dute Berrio-Otxoa kalean, jai giroan murgiltzeko.

Arratsaldean jarraituko du jaiak, batez ere musika ekitaldiekin. 18:30ean, Trikitilari Gazteen Elorrioko II. Txapelketa jokatu dute, eta, 20:00etan, orfeoia kontzertua emango du, Santa Anako kaperan. Gaez, Musikaire jaialdiko kontzertuagaz amaituko dute Elorrioko patriaren eguna. Tola jauregian joko du Annie B Sweet abeslari espainiarrak.

Trikitilari Gazteen Elorrioko II. Txapelketa jokatu dute, eta, 20:00etan, orfeoia kontzertua emango du

Belakortu zerrategia eraisteko lanak hasi dituzte

Gaur amaitu gura dituzte amiantoa kentzeko lanak, eta, datorren astean, lau eraikinak eraitsiko dituzte

IURRETA A.B.

Goiuriara lekualdatu dute, 70 urte inguruan, herrigunean izan den Belakortu zerrategia. Amiantoa kentzeko lanak amaituta, datorren astean botako dituzte hustutako lau eraikinak; 64.000 metro koadroko orubea geratuko da. Derribos Petralanda arduratuko da lanez, 60.000 euroko aurrekontuagaz.

2001ean onartutako arau subsidiarioek bertan 64 etxebi-

zitza eraikitzea jasotzen dute. Egitasmoa ere landuta dago; baina, “egoera ekonomikoa hobetzean” garatuko dute ingurua, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. Lurzoruaren kalitate agiria lortzea izango da hurrengo pausoa.

Industria jarduera herrigunetik atera du dagoeneko Iurretak. Fundigelen ostean, Salaberria ere eraman zuten Arriandira. Zerrategia da azkena.



Belakortu zerrategian amiantoa kentzen ibili dira, astean, langileak.

Pasai Donibanera irteera kulturala egingo dute

MAÑARIA M.O.

Mañariko Udalak eta nagusien Ursula Donea elkarteak antolatuta, Pasai Donibanera (Gipuzkoa) irteera kulturala egingo dute, bihar. Adibidez, itsasoko bizimoduari eta kulturari eskainitako Albaola museoa bisitatu ahalko dute ekimenean parte hartuko dutenek.

Mañaritik 09:00etan irtengo dira. Pasai Donibanera ailegatu eta gero, itsasontzia hartuko dute Albaola museora joate-

ko. Izan ere, Ondartxo izeneko hondartzan dago museoa. Bisita egin ostean, lehorrera bueltatuko dira, eta Aginaga sagardotegian bazkalduko dute, 14:00etan.

Domekan, San Martin

Bestalde, etzi, San Martineko ospakizuna egingo dute, Mañarian. 11:00etan meza eskainiko dute, eta, amaitzean, dantza saioa ere bai. San Martin ermitan izango dira ekitaldiak.

Santander bisitatuko dute, nagusien elkartearen eskutik

GARAI M.O.

Datorren barikuan, uztailearen 10ean, Santanderrera (Kantabria, Espainia) bidaia egingo dute hainbat garaitarrek, San Migel nagusien elkarteak antolatuta. Hiria ikusteaz gainera, bisita gidatuak egitea eta gastronomia probatzea izango dira irteeraren helburuak. Egun-pasa egiteko aukera dute, beraz.

Partaideak 08:30ean irtengo dira Garaiko plazatik. Santanderrera ailegatzean, hiria ezagutzeko, buelta bat emango dute autobusez. Gero, katedrala ikusiko dute.

Eguerdian itsas museora joango dira, eta bertako jate-txean bazkalduko dute 14:30 aldera. Indarrak hartu ostean, museoan murgilduko dira, arratsaldean.

Irteeran parte hartu gura duten herritarrek 27 euro ordaindu beharko dute. Antolatzaileek azaldu dutenez, Herriko Tabernan eman behar da izena, uztailearen 7a baino lehenago.



Ostirala, uztailak 3

22:30 Musikaire: Tolan Jauregian, Bombino (Afrika)

Larunbata, uztailak 4, Berrio-Otxoa eguna

08:00 Elorrioko ermiten ibilbidea

12:00 Meza Nagusia Basilikako Koruarekin

13:00 Luntxa eta musika (Molto Vivace Brazzet MV) Berrio-Otxoa kalean

18:30 Elorrioko trikitilari gazteen II. txapelketa

20:00 Berrio-Otxoa Orfeoia Santa Anako kaperan

22:30 Musikaire: Tolan Jauregian, Anni B Sweet (Espainia)

Igandea, uztailak 5

Goizez azoka ekologikoa erdigunean

11:30 esku-pilota partidak (umeak, gazteak eta nagusiak)*

22:30 Musikaire: Tolan Jauregian, "Mozkorra parregarri" opera komikoa (Euskal Herria).

* Euria ari badu, kiroldegiko Hilario azkarate frontoian izango dira.

Antolatzaile eta laguntzaileak

Elorrioko Udala, Erdella MT, Basilikako korua, Iturizoro Elkartearte, Berrio-Otxoa pilota-eskola, Berrio-Otxoa Orfeoia, Arriola Kultur Aretoa, Elorrixa Ekologia Taldea

Enplegu eta Berdintasun arloetako batzorde berriak sortu dituzte

Zornotzako Udalak bederatzi batzordegaz funtzionatuko du agintaldi honetan



Udalbatzarrak hileko azken barikuetan eta 09:00etan egiten jarraitzea onartu zuten azken osoko bilkuran.

ZORNOTZA Joseba Derteano Zornotzako Udalak bederatzi batzorde izango ditu agintaldi honetan, eta horietako bi sortu berriak dira: Enplegu eta Ekonomia Sustapenerako Batzordea eta Berdintasun Batzordea. Joan zen asteko udalbatzarrean eratu zituzten batzorde horiek.

Enplegu eta Ekonomia Sustapenerako Batzordearen gidaritza Estibalitz Martiartu zinegotzi jeltzaleak izango du, eta

helburu nagusiak langabeziari aurre egitea –1.000 langabetutik gora dago Zornotzan– eta politika ekonomiko eraginkorrak martxan jartzea izango dira. Aurtun, batzordearen egitura, diseinua eta ekintzak zehaztuko dituzte, eta datorren urtean sartuko da indarrean, aurrekontuetan batzorde horretarako diru atal propioa onartzen dutenean. Bitartean, enplegu planean jasotako ekintzak garatzen

jarraituko dute. Batzorde berri horren lokala “erdigunean eta herritarrengandik gertu” kokatzeko asmoa erakutsi du Andoni Agirrebeitia alkateak.

Berdintasun Batzordeari dagokionez, orain arte Gizarte Ekintza Sailetik landu dituzte arlo horretako politikak; agintaldi honetan egitura propioa izango du: “Lehen baino indar handiagoa izango du, aurrekontuetan eta eguneroko lanean”.

Aho batez onartu dute alkatearen liberazioa

ZALDIBAR Itsaso Esteban

Datozen urteetako udalaren jarduna arautuko duten erabakiak hartu ditu udalbatza berriak, astean. Azken agintaldian bezala, bi hilabetero egingo dituzte udalbatzarrak, eta sei batzorde eratuko dituzte. EH Bilduko ordezkariak izango dira sei batzordeen buruak: Arantza Baigorri Hirigintza, Ingurumena eta Auzoak Batzordearena; Eneritz Azpitarte Berdintasuna eta Gazteria Batzordearena; Carmen Sampedro Gizarte Ongizatea, Migrazioak eta Osasuna Batzordearena; Delfin Zubizarreta Kultura eta Kirola Batzordearena; Aitor Arizmendiarieta Ogasuna, Ondarea eta Pertsonalarena; eta Aitor Lopez Euskara eta Hezkuntzarena.

Arantza Baigorri alkateak kargu horretarako erabateko dedikazioa (liberazioa) izango duela eta urtean 45.052 euroko soldata jasoko duela zehaztu zuten, aho batez.

Bestalde, Carmen Sampedro izango da agintaldi honetan alkateorde, eta Aitor Arizmendiarieta, diruzain.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



Bizitzako aukerak

Ondo baino hobeto frogatu dugu negoziatzeko dugun gaitasuna, eta akordioak egin ditugu alderdi gehienekin, herritarrentzat, Durangorentzat, onuragarria iruditzen zaigun guztietan. Oraingoan ere, udal hauteskundeak izan ondoren –udaleko ezer gutxi izan arren–, EAJk gehiengorik gabe egin behar zion aurre legegintzaldiari. Guk bi aukera genituen: Pilar alkate izateko proposatu, bi boto atera, eta oposizioan gelditu. Edo negoziatu, egonkortasun pixka bat lortu nahian, eta gobernuan sartu, herritarren beharrezanetan oinarritutako akordio batekin, horrela, adibidez, enplegu planak eta udalerriko langabetuak zuzenean kontratatzeak laguntzak baren hartuz; ekintzailetzarako laguntzak emanez, jarduera ekonomiko berriak abiaraztea erraztuz eta negozioak zabaltzeko burokrasia gutxituz; autonomoentzako, merkataritzarako eta ostalaritzarako laguntza planak sortuz, gure herriko ekonomiaren funtsa dirrelako; alokairuko etxebizitzak sustatuz, kaleratzeen aurka egiten ari garen borrokarekin jarraitzeko...

Hori guztia ez da berria, akordio zehatzak egin ditugu proiektuak abian jartzeko, eta orain kudeatzeko aukera eta erronka ditugu aurrean. Politikari ezagun batek zioenez, “bizitzak beti ematen dizkizu bi aukera: eroso eta zaila. Aukeratu beti zaila, horrela ziur jakingo baituzu ez duela erositasunak hautua egin zure orde”. Edo, bestela esanda, lagun zerbitzari batek oraintsu azaldu zigunez, “askoz ere eroso edo errazagoa da arrautzopila nola dagoen eginda kritikatzeko, lanean hastea eta arrautzopila egitea baino”. Bistan da hautu zailenaren alde egin dugula.

Mallabiko Udalak 2.400 euro bidali ditu Nepalera

MALLABIA Markel Onaindia Nepalen gertatutako lurrikaren ondorioz kaltetutako laguntzeko, 2.400 euroko diru atala bideratu du Mallabiko Udalak. Maiatzean, batzordean alderdi politikoek aho batez onartu eta gero atera zen aurrera ekimena.

Mallabiko Udalak Caritasen esku utzi du diru atal bat, elkarteak Nepalen dituen proiektuei laguntzeko

na. Larrialdietarako Mallabiko Udalak diru atal bat du aurreikusita, eta bertatik hartu du 2.400 euroko kopurua. Orain, Caritasen esku utzi du diru hori, elkarteak Nepalen dituen proiektuetara bideratzeko.

Nepal berreraikitzen

Apirilaren 25ean Richter eskalan 7,9 graduko lurrikarak hondamendia eragin zuen Nepalen, eta 8.100 hildako eragin zituen. Aste bi geroago, Nepalen bertan gertatutako beste lurrikara batek hirurogeitaka hildako eragin zituen.

Trafikoa eten dute Eituan piztutako suagatik

Ertzaintzak leihoak ixteko aholkua eman zuen

BERRIZ J.G./A.U.

Martitzen eguerdian hainbat herritarren arreta bereganatu zuen Eitua inguruan sortutako ke beltzak. Estampaciones Biztan enpresan nafta erregaiaik sua hartu zuen, eta Iurretako, Markinako eta Derioko suhiltzaileek bertaratu behar izan zuten sua itzaltzeko. Gernikatik zisterna-kamioia ere eraman behar izan zuten. Suteak ez zuen zauriturik eragin, baina N-634 errepidea itxi egin zuten une batez. Trafikoa Trabakua-

tik desbideratu zuten arren, auto ilara luzeak sortu ziren.

Sua guztiz amatatzeko, hirulau ordu behar izan zituzten. Ertzaintzak inguruko etxeetako bizilagunei leihoak ixteko aholkatu zien, su hartu zuen materiala “potentzialki toxikoa” zela-eta.

Martitzenean egin zuen be-roak zaildu egin zuen suhiltzaileen lana, eta Berrizko Udaleko brigadako langileek eta hainbat herritarrek laguntza eskaini zieten.

ALBERDI
HARATEGIA



Askatasun etorbidea, 1 DURANGO · Tel.: 946 817 658
Sabino Arana, 1 ZORNOTZA
- Zornotzara ere heldu gara-

ETXEKO TXORIZO ONENAREN SARIA

2014-2015
VILLA DE BILBAO

ODOLOSTE ONENARI SARIA

2013 BIZKAIKO ODOLOSTEEN MUNDUKO TXAPELKETAKO IRABAZLEA

2014 ELORRIOKO BUZKANTZA JAIKO ODOLOSTE ONENA

Anbotoko buzoia ren 100. urteurrena gogoratuko dute

1915. urtean Anboto puntan buzoia ipini zuten mendizaleak omenduko dituzte



Indalecio Ojangurenen argazki erakusketa egongo da, egun osoan, ikusgai.

ABADIÑO Itsaso Esteban

Anboto mendian buzoia ipini zuten egunaren mendeurrena gogoratzeko egitaraua prestatu du Bizkaiko Mendi Federazioak. Uztailaren 5ean, domeka, Urkiolako santutegi inguruan egingo dituzte ekitaldiak. 12:00etan eta 17:00etan izango dituzte hitzordu nagusiak: eguerdian, postontzian plaka ipiniko dute, eta, arratsaldean, 1915. urtean, Anboto gainean, 1.331 metroko altueran, buzoia ipini zuten Bilboko kirol elkarteko hamasei mendizaleak omenduko dituzte. Europako beste herrialde batzuetako ohitura jarraituz ipini zuten burdinazko buzoia Anboton. Euskal Herriko mendietako lehenengo buzoia izan zen.

Askotariko ekintzak antolatu dituzte domekarako, Urkiolara gerturatzen direnentzat. Goizean, ume zein helduek mendi ibilbideak egingo dituzte parke naturalean zehar, eta bestelako hainbat kirol jarduera egiteko aukera ere eskainiko dute: eskalada horma bat ipiniko dute, eta *slackline* eta herri kirolak praktikatzeko aukera ere izango da, esaterako.

Umeentzat hainbat jarduera ere egingo dituzte: eskulanak eta ipuin kontaketa saioa, adibidez. Gainera, Indalecio Ojangurenen argazki erakusketa egongo da egun osoan ikusgai, eta Anbotori buruzko berbaldia eskainiko dute, 18:00etan.

Herri-ola webgune berriztuagaz

OTXANDIO J.D.

Herri-ola Otxandioaren etorkizuna eraikitzeke herrigintza egitasmoa da, hainbat herri-tarren eta eragileren ekarpenekin gorpuztu dena. Denbora batez egitasmoaren egitura definitzen egon ostean, teoria apurka praktikara eramateko prozesua hasi dute. Bide horretan emandako pausoak eta hartuko diren erabakiak Herri-olaren webgune berriztuan jakinaraziko dituzte: www.herri-ola.eus.

Bertan, Herri-olak eragin gura duen hamalau arloetako gaurkotasuna jakin ahal da. Arlo bakoitzean izendatutako zaindariak izango du pauso horien berri webgunean azaltzeko ardura. Webguneak herri-tarren ekarpenak jasotzeko bitartekoa ere izan gura du. Horrela, ideia bat duenak eta berori martxan jartzeko prest dagoenak *Proiektuen azoka* izeneko atalean idatzi dezake proposamena.

Ekainean, Herri-ola batzordea eratu, eta lehen batzarra egin dute. Egitasmoaren ikuspegi osoa izango duen batzordea izango da. Arlo bakoitzerako (hezkuntza, euskara, lehen eta hirugarren sektoreak...) pentsatutako ildo estrategikoak zein proiektu zehatzak han azalduko dituzte. Aurrerantzean, hileko lehen astelehenetan, 19:00etan, batuko dira, Mainondoko eskolan. Batzorde publikoa da eta herri-tarrak bertaratu daitezke.

> DURANGALDEA ASTEON

Mozorro Eguna, Amatan

IURRETA > Jai giroa izango dute asteburuan, Iurretako Amata auzoan. Gaur, Donien Atxa igo ondoren, trikiti jaialdia hasiko dute, 20:00etan. Mozorro Eguna izango dute bihar, San Martin egunez. Jai Batzordeak gonbita egin du tortilla txapelketara mozorrotuta joateko. Domekan, trikitilarien kalejira eta meza izango dira, besteak beste.

'Iurretan erosi' kanpaina

BERRIZ > Esperanza Crespo Flores izan da *Iurretan erosi* kanpainaren lehenengo zozketaren irabazlea: 100 euro irabazi ditu. Dendak Bai merkatari elkarteak eta Iurretako Udalak abiatu dute kanpaina, herriko saltokiak sustatzeko helburuagaz. 23 dendak egin dute kanpainagaz bat, eta oso pozik daude antolatzaileak.

Kaleko argiteria berrituko dute

DURANGO > LED teknologia-dun hemezortzi farola eragin-korrango ipiniko ditu Durangoko Udalak, Frai Juan Zumarraga kalean. Uztailan ibiliko dira lan horiek egiten. Inguru horretako segurtasuna hobetzen lagunduko du espaloi eta zebra bideetako argiztapena hobetzeak.

Iritzia

Gure Esku Dago

Hitzon bitartez eskerrak eman nahi genizkioke ekainaren 21ean Bilbora gerturatutako Durangaldeko herrikideei. Erabakitze eskubidearen aldeko ekitaldi erraldoiek oraindik ere lan handia egin behar dugula erakutsi bazuten ere, bide onean goazela baieztatu zuten beste behin, milaka eta milaka herritar batu baikenen autodeterminazioaren alde Euskal Herriko bost hiriburutan. Gaizki egindakotik ikasi eta berrindartuta ekin beste erremediorik ez daukagu erabakitzeko eskubidearen defentsan. Ondorioz, guztioi eskerri beroenak emateaz gain,

zera adierazi nahi genizuke: Durangaldeko Gure Esku Dago dinamika taldeak plazer handiz hartuko lituzkeela zuetako bakoitzaren ekarpenak. Autodeterminazioa noizbait gauzatuko bada, eta dudarik ez izan herri gisa dagokigun eskubide hori berandu baino lehen lortuko dugula, gu guztion partaidetzaz izango da eta. Herriko dinamikan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, beraz, ondoko helbidearen bidez gurekin kontaktuan jarritz: gureeskudagodurango@gmail.com. Esandakoa: mila esker eta hurren arte, atoaan elkar ikusiko baitugu berriz!

Zuzenketa

Lagunok:

Nik uste, *Goita* horrela idatzita txarto da goela, Mallabiko auzo horren izena beti esan izan delako a luze batekin, alegia, azkenean azentuaturik. Horrela agertu du Euskaltzaindiak Izendegietan, alegia, *Goitaa*.

Oker jarri dute Erein Egune. Bi arrazoiengatik: bata, euskaraz ezin delako

aditz bat horrela erabili, *ereite* baizik. Horrela esango lukete euskaldun jatorrek; bi, Durangoko Uriko euskararen *Eguna* izan delako. egune esan ohi dugu inguruko baserri herrietakook. A artikulua ondo esan da Durango, Elorrio eta Ermuko urietan, elizateetan ez. Beraz, forma hobetsia Ereite Eguna litzateke.

Andoni Urzelai
Durangoko GURE ESKU DAGO

Jose Luis Lizundia



astekaria@anboto.org
astearte 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9, 48215
• Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpidean jarraituz zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta iritzien erantzukizunik.



Arturo Apraiz | Geologia irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean | Zornotza, 1967



“Himalaia mendilerroa milioika lurrikaren eraginez sortutakoa da”

Apraizek dioenez, eta horretan diharduen arren, lurrikara bat gertatuko den aurreikusteko modurik ez dago

> BERBAZ Aitziber Basauri
Gurean pentsaezina da Nepalen izandako lurrikararik gertatzea. Arrisku sismikoa txikia da Euskal Herrian; hala ere, dardara sentituko bagenu, larritu egingo ginateke, printzipioz arriskurik ez legokeen arren.

Lurrikarak indar suntsitzaileak dira gizakiontzat, baina indar eraldatzaileak Lurrarentzat. Lurraren jarduteko era gure denbora eskalatik oso urrun dago. Hor dago arazoa. Milioika urtean lurra gai da Himalaia, ozeanoak eta gauza izugarri politak sortzeko, baina horretarako gertakizun puntualak ere sortu behar dira tarteka: lurrikarak edo prozesu bolkanikoak. Azken horiek daude gure denbora eskalan; horiek dira sentitzen ditugunak, guran eragina dutenak.

Zerk sortzen du lurrikara?
Mugitzen diren oso plaka handiz osatzen da lurzorua, eta, bata bestearen kontra talka egitean, indar izugarria pilatzen da: urtean bi eta hamar zentimetro arteko mugimendua izan daiteke, baina, urteak pilatzean,

kilometro asko pilatzen dute. Plaka bi elkarri bultzaka dabilzanean, urtebetean ez da ezer gertatuko, baina, apurka, lurrazaleko arroketan pilatuko da indar hori. Gehiago ezin diotenean eutsi, bat-batean apurtuko dira arroka horiek, eta energia izugarria askatuko dute.

Aurreikusteko modurik ez dago.
Zientifikoki ez. Ez dago ikertzailak ados jartzen dituen formularik, sasi-zientziagaz lotutako proposamen batzuk egon arren. AEBak eta Japonia lurrikara askoko lurraldeak dira; potentzia ekonomiko garrantzitsuak biak. Eta ikerlari talde asko dabilzanean, lurrikara non eta noiz gertatuko den, behintzat, jakitera hurbildu guran. Baina hainbeste dira kontuan hartu beharreko faktoreak... Eta denak ez ditugu ezagutzen, gainera. Oso zaila da, eta, etorkizun laburrean, ez dut uste lortuko denik.

Horiek dira arrisku sismiko handiena duten herrialdeak?
Lurrikarak ez dira berdin gertatzen mundu osoan. Dena den, Ozeano Barearen inguruko lu-

rralde guztiak eta Himalaiatik Alpeetarako mendikate gerrikoaren ingurua dira arrisku sismiko handiena dutenak, bertako ezaugarri geologikoengatik.

Horren ezaguna den San Andres faila dago hor.

Bai. *San Andres* filma ere estreinatu dute orain. Kalkulu estatistikoki bat ere badago: 100 urtetik behin lurrikara bat izango dute San Frantzisko hirian, historikoki horrela gertatu da. 1906. urtean, hiria guztiz suntsitu zuen lurrikara batek. Ia 110 urte pasa dira. Oraindik ez da gertatu, baina zain daude, badakitelako datorren hilean, hurrengo urtean edo bost urtera gertatu gertatuko dela. Aurreikusterik ez dute, ezta prebentzio lanik egiterik ere. Arriskuagaz bizitzen ikasi behar dute.

Hildako eta kalte asko eragin ditzake lurrikarak.

Bai. Baina hildakoak ez ditu lurrikarak sortzen. Lurrazala zatitzen duten arrakalak erakusten dituzte filmek, horietatik jausten diren pertsonak... Hori gezurra da. Lurrikarak metro

“*Lurrikarak metro bat edo biko aldaketa sortzen du, arrakala erraldoirik ez*”

“*Lurrikararik bortitzenak zelai batean harrapatuz gero, gehienez jausi egingo gara*”

bat edo biko aldaketa sortzen du, arrakala erraldoirik ez. Askatutako energia da kontua: 4,5 magnitudeko lurrikarak bonba atomiko batek beste energia sortzen du; 7koak 100 edo 1.000 bonba atomikok batera askatutakoaren parekoa. Gizakiak eragindako parekorik ez dago, natura indartsuagoa da.

Horrek sortzen du sunsipea.
Eraikinak, zubiak, tunelak...

kulunkarazten ditu lurrikarak, eta horiek jaustean egoten dira hildakoak. Himalaiaren magalean aske dauden harriak mugiarazi ditzake, eta korronte horrek harriak estali, eta hildakoak eragin ditzake. Lurrikararik bortitzenak ere zelai batean harrapatzen bagaitu, gehienez, jausi egingo gara, dardararen ondorioz. Ez dago arriskurik. Hemen ez gara arrisku horregaz bizi, ez dugu horren ardurarik.

Euskal Herrian lurrikararik egoitea pentsaezina da?

Lurrikara txikiak gertatu izan dira, erregistratuta daude, baina, gutxi. Noizbehinka egon da 3 edo 3,5 magnitudekorik; 4koa gauza handia litzake. Hala ere, horiek ez dute eraikinak botatzeko nahikoa indar. Hemen, pentsaezina da magnitude handiagoko lurrikararik, magnitude txikiko milaka dauden tokietan gertatzen direlako lurrikara handiak. Arrisku sismikoa oso txikia da, baina, sentituz gero – lanpara mugitzen ikustean, adibidez –, larrituko ginateke, berz, beste arriskurik egon ez arren.

Nepal dugu oraindik gogoan. Himalaia ere mugitu ei da

Bai, Everest zentimetro bi altuagoa dela diote. Indiak eta gainetako Asiak elkarri bultzaka eginez sortu da Himalaia, azken 40 milioi urtean; milioika lurrikararen eraginez sortu da. Mendi turismoa da diru iturri nagusia Nepalen, eta lurrikara batek uxatu du guztia: paradoxa da.

Lurrikarek ezin zaie aurre egin.
Ez, eta eskerrak! Aurre egin ahaliko bagenie, sortu ere egin ahaliko genituzke eta. Noiz eta non gertatuko diren jakiten saiatzen dabilza, kalteei aurre egiteko. Hildakoak eta kalteak gutxitzeko, hobeto eutsiko dieten eraikinak sortu nahian ere badabilza. Baina dirua behar da. Duela laupabost urte, Haitin 6,5 magnitudeko lurrikaran 20.000 pertsonatik gora hil ziren; hilabetera, Japonian hogeitaz inguru hil ziren 7,2ko lurrikaran.

Lurrikarak sortzen du tsunamia.
Baldintza zehatz batzuetan, ozeanoaren azpian gertatutako lur mugimenduak sortzen du. Plaka bat metro bat altxatuz gero, gaineko ura ere altxatuko da, eta olatua sortuko du. Horrela, 4.000 metroko ur zutabea izango dugu kostaldera bidean. Olatua gorantz haziko da, eta, itsaso sakonera murriztu ahala, kostara itzelezko indarragaz helduko da. *Lo imposible* ikusten da hori.

JAIIAK!

Zaldibar

2015ko UZTAILA



Zaldibarko Udalak
udako jai zorientsuak
opa deutsuez zaldibartar guztioi



ZALDIBAR
Elizateko Udala

ZALDIBARKO JAIEN EGITARAUA

UZTAILAK 3, BARIKUA

11:00-13:00 eta **16:00-19:00** Umeentzako parkea, eskolan.

15:00-20:30 Eskulanen erakusketa, jubilatuen etxepean.

18:00 Afizionatuen arteko pilota partiduak, Olazar pilotalekuan.

18:00 Kalejira, Patxaranga elektro txarangagaz, txosnetan hasita

19:30 Zaldibar kantuan, Taberna Ibiltaria taldeak lagunduta.

23:00 Dantzaldi-goatekea, 1960ko hamarkadako musika eta DJ Disco Music, Euskal Herria etorbidean, Helmuga elkarteak antolatuta.

23:00 Kontzertuak: Hora 13 + Skakeitan + Tea Party.

UZTAILAK 4, ZAPATUA

10:00-13:00 Arku-tiroa ume eta nagusientzat, arku taldearen galerian.

12:30-14:00 Tortilla txapelketa, eskolan.

14:00 Gazteentzako bazkaria, gaztelekuan.

16:00-19:00 Saskibalo partidua 3x3 eran (mutilak eta neskak), eskolan.

17:30-20:00 Eskulanen erakusketa, jubilatuen etxearen azpiko solairuan.

18:00 Txosnen Arteko IX. Euskal Herria etorbidean eta kale-animazioa parkean.

19:00 Afari-merienda, Olea kalean: solomoa (1€) eta sardinak (2€).

19:30 Batukada Orkresta Elektro Txarangarekin.

24:00 Erromeria Luhartz taldeagaz.

03:00 Kulero eta galtzontzillo lasterketa, txosnagunean.

UZTAILAK 5, DOMEKA

10:30 Eskolarteko txirrindulari proba. Herrialde mailako titulua. Kategoriak: hasiberriak, kimuak eta infantilak.

11:00 Kalejira Euskal Herriko trikitilari gazte txapeldunekin.

11:30 The Farra Marching Band taldekoekin kalejira.

12:00 Euskal dantzak, Zaldia plazan.

17:00 Umeentzako entzierroa, Euskal Herria etorbidean.

17:30-20:00 Eskulanen erakusketa, jubilatuen etxearen azpiko solairuan.

18:00 Bertsolariak, Zaldia plazan: Balkoitik balkoira.

19:30 Antzerkia: Malas compañías zirku taldea.

22:00 Jaietako bideoen emanaldia.

23:00 Su artifizialak, Autonomia kalean.

UZTAILAK 11, ZAPATUA

08:00 Mendi ibilaldi neurtua. Irteera: Zaldia plaza.

18:00 31. Argazki rallya: sari banaketa.

UZTAILAK 12, DOMEKA

12:00 Euskal dantzak, San Martinen.



Libre eta zabalik!



Sta. Isabel, 2 behea
Tel.: 946 225 063
48250 Zaldibar, Bizkaia



Bideo alokairua Prentsa salmenta
Fotokopiak Gozokiak
Tel./Faxa: 946 827 413 • Zaldiasolo E.7
48250 ZALDIBAR



07:00etatik aurrera zabalik
Euskal Herria, 18
946 550 481 - Zaldibar
f Paularen Zokoa



**FATXADAK
TEILATUAK
ETXEBIZITZAK
MERKATARITZA LOKALAK
GREMIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA**

Zubiaurre, 48 - Solairuarte
48250 ZALDIBAR - ERMUA
Tel./Faxa: 943 172 767 - Mug.: 629 401 713/12
capeloreformas@gmail.com - www.reformascapelo.com



www.gallastegiharategiak.com



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zaldiasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Euskal Herria kalea izango da jai giroaren epizentroa

Kalean zehar egingo dituzte Zaldibarko jaietako ekintza gehienak

> **JAIK** Itsaso Esteban

Jai giroa herriaren erdigunera, kalera eta plazara, ekartzeko helburuagaz antolaturiko egitaraua abiatu zuten atzo, Zaldibarren. Jaien hasiera iragartzen duen Donien Atxa ipini zuten herritarrek, eta Zaldia mendi elkartekoek txapligua jaurtitzegaz batera ekin zioten udako jaiak ospatzeari. Jaien lehenengo eguneko iluntzean, musika eta jan-edana izan zituzten: Koral elkarteko trikitilariak eta herri batukadakok ipini zuten afalaurrean erritmoa, eta, Be-koetxe kalean eta txosnagunean odoloste-janean eta herri afarian elkartu ostean, Stai Zitto, Vancouver eta Pepe Botica taldeek eskaini zuten kontzertua.

Datozen egunetan ere, Euskal Herria kalea izango da Zaldi-

barko jaien zentroa, egunez zein gauzez. Bertan egingo dituzte, esaterako, parte-hartze handia izaten duen herri olinpiada eta kontzertu jendetsuak. Jaietako kalejirak ere kale horretan zehar ibiliko dira.

Jaiak irauten duten egun gehienetan, txarangak eta bandak ibiliko dira kalean zehar musika eskaintzen

Gaur, 19:30ean hasita, Taberna Ibiltariak lagunduta egingo dute kantaldia, eta elektrotxaranga ere kalerik kale ibiliko da musika zabaltzen. Jaiak irauten

duten egun gehienetan ibiliko dira hainbat estiloko bandak kalea girotzen: herri batukada, The Farra Marching Band eta Euskal Herriko trikitilari gazteak, adibidez.

Jendea ezagutu eta harreman berriak egiteko, edo zaharrak berreskuratu eta estutzeko aukera izan daitezela jaiak, horixe Arantza Baigorri Zaldibarko alkateak jai egitarauaren sarreran adierazi duen nahia: jaietan ere “kalea partekatzea da helburua”.

Adin guztietako jendeari egin diote jaietan parte hartzeko gonbidapena, eta guztientzako moduko ekintzak antolatu dituzte: besteak beste, ume zein helduentzat kirolerako zein jolasarako proposamenak eta askotariko lehiaketak.



Euskal Herria kalean egingo dituzte herri olinpiadak. Delfin Zubizarreta



Las Tea Party taldearen elektronikak itxiko du gaurko kontzertua.

Aukera asko eta aniztasun handia musika eskaintzan

Zuzeneko musika eskaintza zabala eta plurala izango da, asteburu honetan, Zaldibarko jaietan. Txosnagunean, jairako eta dantza egiteko doinu aproposak izango dira. Gaur, uztailaren 3an, 22:30etik aurrera, adibidez, Hora 31, Skakeitan eta Las Tea Party taldeak ariko

dira. Las Tea Party taldeko Eva Gutierrez eta Lorea Argarate DJek euren doinu elektronikoen itxiko dute kontzertua. Baina, horren aurretik, bestelako erritmo eta doinuak egongo dira entzugai: Hora 13 taldearen kontzertuaren ostean, ska, reggae eta rock kantak

eskainiko ditu Donostiako Skakeitan zazpikoteak. Helmuga emakume elkartek antolatuta, bestalde, 60. hamarkadako musikagaz dantzaldia egingo dute, 23:00etan hasita, Euskal Herria kalean, gaur.

Atzo hasi zituzten jaiak Durangaldeko Stai Zitto taldearen ska doinuekin, Vancouver taldearen blues, funky eta punk nahasketagaz, eta Extremoduroren bertsioak egiten dituen Pepe Botika taldearen eskutik.

NEGUGOGOR TABERNA

Zaldia Elizateko plaza, 8
Tel.: 946 827 003

ondo pasa jaietan

etarte

Barne diseinua
Obra proiektuak
Jarduera legeztatzeak
Erreformatak
Altzariak

www.etarte.com

Euskal Herria z/g. ZALDIBAR T/F: 94 603 04 16
Barne diseinatzailea: Garazi Burgoa Zuazo

SORTIN
ZALDIBAR

Euskal Herria
kalea, z/g
ZALDIBAR

SAN ANDRES
CARROCERÍAS

Garabia
Tailerrak: karrozeria,
txapisteria, pintura

San Andres etorbidea, 2
Tel.: 946 827 620 (ZALDIBAR)
Tel.: 657 796 730 (ERMUA)



Zaldia mendi taldeko kide batzuen familia argazkia.

Zaldia mendi taldearen txupinazoagaz abiatu dituzte jaiak

Mendi taldeko Alfonso Miranda izan zen txaplogua pizteko arduraduna

> JAIK Joseba Derteano Zaldia mendi taldeak jaurtitako txupinazoagaz, atzo hasi zituzten Zaldibarko jaiak. Taldean urte asko daramatzan eta bertako balioak ezin hobeto islatzen dituen Alfonso Mirandak piztu zuen txupina.

Urte askotako ibilbidearen ostean, herrian errotuta dagoen mendi taldea da Zaldia. Hasiera-hasieran, Zaldibarko koral elkarteak gidatu zuen, baina, 1973an, Zaldia kirol elkarteak sortu zuten, eta handik gutxira egitura berri hartako atal bat

izatera pasatu zen mendi taldea. Saskibaloia, futbol eta pilota taldeekin batera, Zaldia kirol elkarteak lau adarretako bat da.

Gaur egun, 50 federatu inguru ditu, eta, "apur bat gehiago, apur bat gutxiago, kopuru horren bueltan" ibiltzen direla urtero adierazi du Migel Angel Gaztelurrutia mendi taldeko presidentek. Hilean pare bat irteera egiten dituzte Euskal Herriko zein Errioxatik (Espainia): "Gu ez gara Pirinioetara eta antzeko gailur garaietara joaten. Gehiago gara inguru-

ko basoetako ibilbideak egitekoak". Herriko gazteak, aldiz, sarritan joaten zaizkie kran-

"Gu ez gara Pirinioetara eta antzeko gailurretara joaten; inguruko basoetatik ibiltzen gara"

poiak eta beste material batzuk eskatzera, Pirinioetara edo bestelako gailurretara joateko: "Gu



Irteera baten ostean, luntxaren laguntzagaz indarberitzen.

helduagoak gara, eta gurago izaten dugu inguruan ibili. Gazteek gaztetasuna aprobetxatu behar dute. Gero ere izango dute hemendik ibiltzeko aukera".

Zaldibarko mendi martxa

Zaldia mendi taldeak urtero martxa bat antolatzen du herriko jaien harira. Zaldibar inguruko gailurrak bisitatzeko aukera eskaintzen du: "Hemen inguruan ere badago zer ikusia. Erdella ingurutik Anbotoko mendizerra osoa ikusi daiteke. Oizera joaten garenetan, adibidez, Kantauri itsasoa ikusten da. Toki politak ditugu Durangaldean".

Ibilbidea aldatzen saiatzen dira urtero, mendi martxa erakargarria izan dadin. Aurten, uztailaren 11n egingo dute, jaien hurrengo asteburuan. 08:00etan

jarri dute hitzordua Zaldia plaza. Ibilbideak 25 kilometro izango ditu, eta Ermua gainean dagoen Egoarbitza (733 metro), Intxorta (743 metro), Erdella (682 metro) eta Elorrioko Argiñeta ingurutik eta Leaniz auzotik ibiliko dira, Miñotatik bueltan Zaldibarrera itzuli aurretik. Urtero herritar asko erakartzen dituen ibilbidea izaten da. Hiru ordu eta laurdenean kalkulatu dute aurreikuspenik azkarrena, eta sei ordu eta erdian geldoena, baina gehienak aurreikuspenik azkarrenaren bueltan ibiltzen dira: "Gaur egun, jendea eginda dago horrelako ibilbideetara. Martxistak izaten dira".

Izen-ematea aurretik zein egunean bertan egin daiteke, lasterketa hasi aurretik. Bertan eginez gero, 5 euro da bazkideentzat eta 8 bazkide ez direnentzat.

MUELLES ZALDUA S.L.

MALGUEN FABRIKAZIOA OROKORREAN

Tel.: 946 827 801
Faxa.: 946 827 654
San Andres etorbidea, 1
48250 ZALDIBAR
info@muelleszaldia.com
www.muelleszaldia.com

kizkitza
taberna

**ETXEKO BEREZITASUNAK
PINTXOAK - OGITARTEKOAK**

Tel.: 946 033 310
Euskal Herria etorbidea, 30
48250 ZALDIBAR - Bizkaia

gaurko asesoria zaldibar

Aholkularitza

- Kontabilitatea eta fiskal arlokoa
- Zergak
- Enpresak
- Autonomoak

Komunitateak

- Finken administrazioa
- Higiezin kudeaketa

Tel.: 946 225 498 • Fax: 946 827 993
gaurko@gaurko.net
Zalduosola plaza, 1 • 48250 ZALDIBAR (Bizkaia)

ZAGAR SISTEMAS, S.L.

ZAGAR
SISTEMAS TÉRMICOS Y
CONTRA INCENDIOS

ERAIKINEN ENERGIA · ERAGINKORTASUN ZIURTAGIRIA

SISTEMA TERMICOAK
Klimatizazioa
Aireberritzeko instalazioak
Gasa
Energia berriztagarriak

SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOAK
Su-itxalgailuak
Suteetako ur-harguneak
Suaren kontrako ateak
Suteak antzemateko instalazioak

Mallabiko industrialdea - Solozabal Pol. - Pab. 7 - 48250 ZALDIBAR
Tel.: 946 826 673 - Faxa: 946 826 671 - zagar@zagarsistemas.com

Zaparrada batukada taldea: “Izugarri disfrutatu genuen Haizetaran jotzen”

Lehiaketaz kanpo, euren herriko, Zornotzako, Haizetara jaialdian parte hartu zuten Zaparrada taldekoek



Durangoko Sugarri fanfarriagaz batera, emanaldi berezia eskaini zuen Zaparradak, Zornotzako Haizetara jaialdian.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Euren herriko nazioarteko musika jaialdian, Zornotzako kale musikarien Haizetara jaialdian, eskainitako ikuskizunagaz gus-tura geratu dira Zornotzako Zaparrada batukada taldeko kideak. Izan ere, ekainaren 19tik 21erako asteburukoa jaialdiaren hamargarren urteurrena iza-

nik, lehiaketaz kanpo emanaldi berezia eskaintzeko proposa-mena jaso zuten. Durangoko Suga-rrri fanfarriagaz batera eskaini zituzten emanaldiak, eta, Ruben Pascual taldekidearen berbetan, “izugarri” disfrutatu zuten: “Talde handiak dira biak, jotze-ko modu desberdinak dauzkagu, eta biak uztartzeak bazituen

zailtasunak, baina oso balorazio positiboa egiten dugu”.

Zornotzar askok bezala, go-goz itxaron dute Zaparrada taldekoek Haizetara jaialdia. Pascualek azpimarratu du kontziente direla, herrikoak izango ez balira, ez luketela Haizetaran jotzeko aukerarik izango. Oso esker oneko daude, “babesa eta

Ipurtargi gazte asanbladatik sortu zuten, duela zazpi urte, Zaparrada taldea

berotasuna” jaso dutelako Zor-notzan jo duten aldiro.

Sanba brasildarra da Zapa-rradakoen errepertorioan naga-si: “Indar eta intentsitate handi-ko kantak” eratzen saiatzen dira taldekideak, publikoa “piztea” dutelako helburu. 20 eta 30 urte arteko hogeitaz lagunek osatzen dute, gaur egun, Zaparrada tal-dea, eta, kide gehienak zornotza-rrak diren arren, Durangaldeko eta Bilboaldeko hainbat kide ere baditu taldeak.

Ipurtargi gazte asanbladatik sortu zuten, duela zazpi urte, ba-tukada taldea. “Kontsumismo-tik eta indibidualismotik aparte alternatibak” sortu guran ze-biltzan gazteak, eta Zaparrada taldea sortzea erabaki zuten. “Taldekide gehienak musika hezkuntza jaso bakoak ginen, eta hori ilusioagaz konpentsatu genuen”, oroitu du Pascualek.

Zazpi urteotan, partaideen joan-etorri handia izan da tal-dean, eta krisialdi bat ere gaindi-tu dute. “2012. urtean, taldekide kopuru murrizak kolokan jarri zuen proiektua, eta taldea dese-giteko aukera ere izan genuen esku artean, baina, azkenean, beste taldekide batzuk etorri ziren, eta euren gogoak eta ilu-sioak lagundu zigun taldea sus-pertzen”, adierazi du Pascualek.

Uztailan, Sopelan (Bizkaia) eta Behobian (Gipuzkoa) joko du Zaparrada batukadak, besteak beste. Uda ostean, doinu berriak sortu eta aurrerapausoak ematen jarraitu gura du taldeak.

Kalera aterako dute, eguenean, Iurretako Herri Biblioteka

Irakurketa gune bat atonduko dute, uztailaren 9an, Iurretako Dantzari plazan



Umeak zein helduak Herri Bibliotekaren eskaintzara erakarri zituzten, iaz, ekimen honegaz.

> EKIMENA

Iurretako Herri Bibliotekan, ikasturtean antolatzen dituz-ten askotariko ekintzak amaitu ostean, kalean egingo dituzte hainbat proposamen, datorren astean. Uztailaren 9an, kalera aterako dute Herri Biblioteka, herritarrei liburutegiko zer-bitzuen eta eskaintzen berri emateko helburuagaz. Iurreta-ko erdigunean eguenero egiten duten azokagaz bat egin, eta erakusmahaia ipiniko dute, Dantzari plazan.

Durangoko Kids & Us eskolaren eskutik, ipuin kontaketa saioa egingo dute, ingelesez, plazan

Kafea eta pastak ere eskaini-ko dizkiete bertaratzen direnei, eta ipuin kontaketa saioa egingo dute, 11:00etan, ingelesez. Du-rangoko Kids & Us hizkuntza eskolaren eskutik eskainiko du-te uztailaren 9ko kontaketa saio hori, Dantzari plazan. *Phantom Manor* izenburuko saioa, 3 eta 8 urte arteko umei zuzenduri-koa, izango da entzungai.

Ikasturtean ere hainbat aldiz egiten dute liburutegiko ekin-tzak kalera ateratzeko apus-tua, Iurretan, umeentzat zein helduentzat Herri Biblioteka barruko ekintzak osatzeko. Adi-bidez, azken urte bietan, Libu-ruaren Nazioarteko Egunean, apirillean, kalera irten izan dira.

Udako ordutegia

Ekain amaieratik, ordutegi bereziagaz dabilta Iurretako Herri Bibliotekan, eta, irailaren 4ra arte, goizez baino ez da egon-go zabalik liburutegia; 08:30etik 13:30era, hain zuzen. Sasoi hone-tan oporrak hartzen dituztenen-tzat, bestalde, maileguak uda guztirako egiteko aukera ere eskaintzen dute Iurretan.

Irakurketa gune bat pres-tatuko dute kalean, eta Herri Bibliotekaren bildumaren lagin bat ipiniko dute kontsultatzeko: liburuak, aldizkariak, musika, liburu irakurgailuak eta table-tak, esaterako.

> MUSIKA Itsaso Esteban

Bederatzi bikotek parte hartuko dute Trikitilari Gazteen Elorrioko II. Txapelketan. Uztailaren 4an, arratsaldean, plazako pilotalekuan egingo dute saioa; 16:00etan hasiko dute kanporaketa, eta epaimahaiaren ustez fandango bat ondoen jotzen duten sei bikoteak igaroko dira finalera. 18:00etatik aurrera jokatu dute finala. Hiru ariketa egin beharko dituzte sei finalistek; trikitia, porrusalda, eta, gehienez, lau minutu iraun dezakeen parte-hartzaileek eurek sorturiko pot-pourri bat.

Txapelketan, 20 urtera arteko trikitilari gazteek parte hartzen dute. Iazko lehenengo edizioa Eneritz Aulesti panderojoleak eta Julen Alonso trikitilari zarautzarrak irabazi zuten, eta Alonso aurten ere egongo da, baina, ekitaldi honetan, Alaitz Escudero panderojoleagaz.

“Arrakasta handia da bederatzi bikotek izena ematea”, azpimarratu du Juan Luis Elorza txapelketaren antolatzaileak. “Baina kezkatuta gaude, bestalde, parte-hartzaile guztiak gipuzkoarrak direlako, ez dugulako lortu Bizkaiko trikitilariak jotzera animatzerik: eskolak eta trikitilari gazteak Bizkaian ere

Trikitilari Gazteen Elorrioko II. Txapelketan 9 bikote ariko dira

Uztailaren 4an, Elorrioko plazako pilotalekuan egingo dute txapelketa



Elorrioko txapelketaren iazko lehenengo edizioan parte hartu zuten trikitilariak eta panderojoleak.

badauden arren, ez dugu txapelketara erakartzea lortzen”.

Hainbat sari egongo dira joan, Elorrioren, bihar: txapela eta 250 euro jasoko ditu irabaz-

leak, 200 euro bigarrenak eta 150 euro hirugarrenak. Laugarren, bosgarren eta seigarren sailkatuek, bestalde, 80 euro jasoko dituzte bakoitzak.

“Ikaragarria” izan zen, Elorzaren berbetan, iazko lehenengo edizioari jendeak egin zion harrrera: 500dik gora entzule inguruk jarraitu zuen saioa.

GEURE DURANGALDEA

**ARANTZA
ARRAZOLA eta
MAIDER
LARRAÑAGA**

San Agustin
kulturgunea

**Kultura giza eskubidea da**

Lucina Jiménez entzutea plazer hutsa da. Unescok aintzat hartzen du Agenda 21ean, eta kultura eta garapenaren arloan, gaiotan oinarritutako gobernantza lantzen duen aditu taldeko kide delako.

La Red –Estatuko antzoki publikoen sareak– Almagron antolatzen dituen jardunaldietan atzera ere entzuteko aukera izan nuen, eta atzera ere hunkitu nintzen, kultura giza eskubidea dela gogorarazi zigulako. Kontu hau ez da berria, Unescok 1966an onartu, eta 1976an sartu baitzen indarrean. Badirudi 40 urte behar izan ditugula esaldi horren pisuaz jabetzeko. Azkenean, heldu omen gara une horretara.

Zer esan nahi du kultura giza eskubidea dela aldarrikatzeak? Ba, kultura giza garapen jasangarrirako ezinbestekoa dela onartzea, kultura eskubideei giza eskubideen edota eskubide politikoen maila bera onartzea. Besteak beste, aintzat hartzea identitate propioa izateko eskubidea, norbanako izaera garatzeko askatasuna, pentsamendu askatasuna, bizitza kulturala askatasunez bizitzeko eskubidea, adierazpen askatasuna edo sorkuntza ekoizpena babestea.

Ondo legoke denon ahalegina horretara bideratzea. Utopia izango da, baina, Lucinak bezala neuk ere Bertolt Brechtek esandakoa ekarriko dut gogora: “Nahasmen sasoi odoltsuotan, nahaste-borraste antolatu, bidegabekeria kontziente eta humanitate deshumanizatuaren sasoiotan, ez dezagun onartu ohikoa saihestezin edo natural bailitzan. Ezer ezin daiteke aldagaitza izan”.

Margolanen erakusketa ipini du Jose Enrike Urrutia Capeauk Durangon

Uztailaren 31ra arte, Durangoko Museoan dago ‘Argiaren paisaiak’ erakusketa



Ekainaren 18an zabaldu zuten erakusketa.

> PINTURA

Ekainaren 18an inauguratu zuten *Argiaren paisaiak* izenburuko pintura erakusketa Durangoko Arte eta Historia Museoan. Jose Enrike Urrutia Capeau iurretarraren margolanen erakusketa da, ekainaren 18tik uztailaren 31ra arte Durangoko Museoan ikusgai dagoena.

Kolore bero eta biziko margolanek osaturiko bilduma da *Argiaren paisaiak*, itsasaldeko irudiak eta baso tropikaletakoa diruen landaredia erakusten dutenak. Argiak paisaia horietan sortzen dituen forma eta koloreak islatzen dira koadroetan.

Urrutia Capeauk berak erakusketaren katalogoan esaten duenez, duela 15 urte Durangon egin zuen erakusketa, margolan ilun eta abstraktuagoak erakutsi zituen. “Orain argiarekiko gatazka besterik ez dut xede”, azaltzen du egileak, “ez baita deus argia bezain gauza eskapatzen errazagorik”.

Joseba Sarrionandiak idatzirikoa da Urrutia Capeauren erakustaren aurkezpen testua, eta idazle iurretarrak kontatzen duenez, gaztetatik datorkio Urrutia lagunari argia bere koadroetan jasotzeko irrika: “Hala eraman gintuen behin Barkoxera hango mendi barronei argi berezia zeriela kontatuz...”. *Argiaren paisaiak* ikustera joatera gonbidatu ditu herritarrak Sarrionandiak testu horretan: “Hor duzue erakusketa, edan lasai koadroei darian argitik”.

**uda
kalean
bizi
2015**

san agustin
kultur gunea kalean

**Son en sus poemas
D'Capricho Habanatik**

**Uztailak 3, ostirala
20:30 - Tabira parkea**

LAN ESKAINTZA

Plateruena Kafe Antzokiak zuzendari-kudeatzailea behar du

HONAKO HAUEK ESKATZEN DIRA:

- Enpresa zuzendaritzan lizentziatua izatea eta ikasketekin loturiko esperientzia izatea.
- Izaerari dagokionez, jarrera konprometitu, planifikatua eta dinamikoa, eta jendaurreko harremanetarako gaitasuna izatea.
- Taldean lan egiteko eta taldea gidatzeko gaitasuna izatea.
- Euskara maila ona izatea, ahoz zein idatziz.
- Ofimatika arloan ezagutza izatea.
- Gidabaimena eta autoa izatea.

BALORATUKO DA:

- Euskal Herriko kultur bizitza ezagutzea.
- Ostalaritza arloa ezagutzea.

HONAKO HAU ESKAINTZEN DA:

- Lan kontratua, jardun osoan.
- Hasteko aurreikusitako data: 2015eko uztaila.

Uztailaren 6a baino lehenago curriculumak bidaltzeko helbide elektronikoa:
zuzendaritza@plateruena.net

Gorka Iturraspe | Abadiño, 1994 | Athletic B-ko jokalaria

“Igoera faseko gol biak nire ibilbideko dotoreenak eta garrantzitsuenak izan dira”

Lesio baten ondorioz, aurten ez du askorik jokatu, baina, igoera fasean, bere ekarpena erabakigarria izan da igoera lortzeko



Igoera fasean sartu dituzun gol biak oso dotoreak izan dira.

Nire ibilbideko dotoreenak eta garrantzitsuenak izan dira. Sekula ez naiz izan gol asko sartzekoa. Iaz, Baskonian bi sartu nituen. Baina aurten 180 minutu jokatu, eta hiru gol sartu ditut.

Oporretatik bueltan, Bigarren Mailan ibiliko da taldea. Zelako denboraldia aurreikusten duzu? Lehenengo eta behin, denboraldi-aurrea gainditu beharra dago. Jokalari asko egongo gara, eta entrenatzaileak erabakiko du nortzuek jarraituko duten. Oraindino ez dakit Athletic B-n jarraituko dudana hurrengo denboraldian. Hala ere, toki bat lortzeko borrokatuko naiz.

Ander Iturraspe anaia lehenengo taldean dabil. Zer garrantzia izan du zure ibilbidean?

Beti jarri dut arreta Anderrengan, eta txikitan bere partiduak ikustera joan izan naiz. Baina, gero, etxean, ez dugu gure futbolari buruz berba askorik egiten. Futbolari buruz orokorrean bai, baina ez geure kontuei buruz. Alderdi profesionala eta familia girokoa bereizten saiatzen gara.

Zelan laburbilduko zenuke zure anaiak aurten egin duen denboraldia?

Fisikoki ez da bere onenean egon, eta lesioren bat ere izan du. Zaila da Athleticean jokatzeko.

Behin, Baskoniagaz, Kulturalaren kontrako partidu batean ikusi zintudan, Tabiran. Min hartu zenuen, eta aldatu egin zintuzten, negarrez.

Ez zen lesioa izan. Hankako muskulu bikiak askotan igotzen zaizkit, eta arazoak izan ditut. Orduan hori gertatu zitzaidan. Amorruren ondoriozko negarra izan zen: lagunak partidua ikustera joan ziren, etxean jokatzen nuen... Lesioak arazo izan dira nire ibilbidean. Kadeteetan nenbilenetik, urtero izan dut lesioren bat, iaz izan ezik. Denboraldi erdia min hartuta eta beste erdia jokatzen, horrela ibili izan naiz. Bizkarreko arazoak izan ditut, meniskoa eta peronea apurtu ditut... Une txarrak bizi izan ditut, baina orain ondo nago: ea horrela jarraitzen dudana.

> FUTBOLA Joseba Derteano Lesio luze baten ondorioz, aurten ez du askorik jokatu, baina zelaian eman dituen minutu apurrak ez dago hobeto aprobetxatzerik. Athletic B-ren igoera fasean ekarpen erabakigarria izan du gol bi sartuta. Lesioa gainditu, eta taldean finkatzea du helburu: “Oraindik asko erakutsi behar dut”.

Denboraldi hasieran nork esango zizuen igoera lortuko zenuenik...

Guk ez genuen espero horrelako denboraldia egingo genuenik. Hirugarren Mailako Baskonia taldetik jokalaria asko igo ginen. *Kukok* [Jose Angel Ziganda entrenatzaileak] esan zigun partiduz partidu joango ginela eta denboraldia aurrera joan ahala markatuko genituela helburuak. Sestao River taldearen kontrako partidua -30. jardunaldia- mugarria izan zen. Etxetik kanpora emaitza onak lortzea kosta egiten zitzaigun, eta, kontuan izanik Sestao zelai zail bat dela, bertan garaipena lortzeak konfiantza handia eman zigun. Playoffetan sartzeko aukera asko genituela sentitu genuen.

Non egon da hain ondo ibiltzeko gakoa?

Talde oso batua gara, eta hartu-eman ona dugu, baina, nire ustez, 1995eko belaunaldian dago gako nagusia. Kimu mailatik elkarrekin ibili dira, eta Lezamako talderik onenetakoa osatu dute. Nik beti konfiantza handia izan dut belaunaldi horrengan. Ni urte bat lehenagokoa naiz.

Zelakoa izan zen ospakizuna?

Imajinatu [barreak]. 600 zale joan ziren Cadizera gu animatzera. Partiduaren ostean, Jerezera joan ginen, eta han ospatu genuen igoera.

Azken kanporaketan, tradizio handia duen Cadiz taldea kanporatu duzue.

“**Taldeari igotzen lagundu diot, eta pozik nago, baina oraindik asko erakutsi behar dut**”

San Mamesen ez zuen ondo jokatu, eta guk egoera aprobetxatu genuen (2-0). Cadizen, bederratzigarren minutuan gola sartu zigunean, asko sufrituko genuela ikusi genuen. Pare bat baloik zutoina jo zuten, eta defentsan indartsu egoten saiatu ginen.

Joanekoan, 33.000 zaleren aurrean jokatu zenuten.

Villanovenseran eta Murtziaren kontra ere jende asko batu zen, baina Cadizen kontrakoa itzela izan zen. Cadizen bertan 25.000 lagunengatik jokatzeko aukera ere zegoen.

Orain dena da poza, baina denboraldiko zati handi bat gogorra izan da zuretzat.

Bai, horrela izan da. Baskoniatik igo ostean, hau izan da nire lehenengo denboraldia Athletic B-n. Aldakan lesio bat izan dut, eta lau hilabetez gelditu egon naiz. Hasieran, entrenatzen nintzen, baina, egoerak okerrera egin aurretik, geratzea erabaki genuen. Orain ondo nago, baina lanean jarraitu behar dut, mina bueltatu ez dadin. Lesioaren ondoren, taldean sartzeko gaitza izan zen; erritmoa hartu behar

nuen, taldekideak oso ondo zebiltzan. Nik nire lanean jarraitu nuen, eta entrenatzailea minutu batzuk ematen hasi zitzaidan sarritzat. Zoritxarrez, aurten ez dut askorik jokatzeko modurik izan.

Igoera fasean, aldiz, oso garrantzitsua izan da zure ekarpena. Gol bi sartu dituzu. Zure burua aldarrikatzeko balio izan dute?

Nik taldeari lagundu nahi nion; jokatutakoak hogeita minutu baziren, hogeita minutu, eta, gehiago baziren, hobeto. Igoera fasean minutu batzuk jokatzeko aukera izan dut, eta, zorteagaz edo zorte barik, taldeari lagundu dioten golak sartu ditut. Taldeari igoera lortzen lagundu diot, eta pozik nago, baina oraindik asko erakutsi behar dut.

“**Lesioak arazo izan dira nire ibilbidean. Une txarrak bizi izan ditut**”

Disko jaurtilari onenak batuko ditu domekako atletismo probak

Juanjo Ziarrustaren Oroimenezko I. Atletismo Proba antolatu du Bidezabalek



Alvarez, udaleko teknikaria, Bidezabaleko Hernández eta Zarrabeitia, Amankomunazgoko jarduneko presidentea.

> ATLETISMOA J. Derteano Domekarako, Juanjo Ziarrustaren Oroimenezko I. Atletismo Proba antolatu dute Durangon, Landakoko pistan. Guztira, hamazazpi erkidegotako 200 bat

atleta batuko dira, eta batzuk atletismoko hainbat espezialitatean erreferenteak dira estatu mailan: "Maila handia egongo da, eta marka interesgarriak ikusi ahalko dira. Hainbat dira

Olinpiar Jokoetan ibilitakoak", azaldu du Juan Ignacio Hernández Bidezaleko presidentea.

Disko jaurtiketan eta iraupen erdiko lasterketetan izango den maila azpimarratu dute an-

tolatzaileek. Disko jaurtiketan hemendik hilabetera Castellon jokatu den Espainiako Txapelketa irabazteko hautagaietako asko etorriko dira; tartean, Frank Casañas eta Loys Mykel Martinez. Biak dira Olinpiar Jokoetan parte hartutakoak.

Bidezabaleko hainbat atleta ere nabarmendu dituzte: Natalia Redondo mailu jaurtiketan, Olatz Egiguren 100 metroko hesidunean eta altura jauzian, eta Said Ben Aissa luzera jauzian. Durango Kirol Taldeko atleta bik ere parte hartuko dute: Ainara Mugartegik 100 metrokoan, eta Kofi Darkok 100 eta 200 metrokoetan.

Martxa espezialitateko proba bat ere antolatu dute 10:30erako. Hain zuzen, horixe izango da ikusi ahalko den lehenengo proba. Azkenengoa 13:20an hasiko den 200 metrokoa izango da.

Probaz Juan Jose Ziarrusta gogoratu gura dute. Durango alkate izan aurretik, hamabi urtez Aldundiko Kirol eta Gazteria Saileko arduraduna izan zen, eta kargu horretan zegoela egin zen atletismo pista Durangon.

ADITUAREN TXOKOA



Juan Carlos Perez

Areto futbola

Diskriminazioa

Autoritate politikoen zein kirol arloko agintarien aldetik jasaten duten gutxiespena salatzeke areto futbol klubek dituzten kezak jakinak eta justifikatuak dira. Parte-hartze faltagatik, erruaren zati bat klubekook dugula ere egia da. Ni neu federazioak deitutako batzarretan izan naiz, dozena erdi klubetako ordezkariak bakarrik geundela.

Areto futbola kuadrillen arteko kirola zen, eta egitura-dun klub gutxi zeuden. Baina hori aldatzen dabil; esaterako, Durangaldean Sasikoak eta Elorrioko Buskantzak dituzten organigramek ez diote inbidarik hamaikako futbol talde bati. Mallabian, Berrizen, Durangon eta Abadiñon xumeagoak diren beste klub batzuk ere ahalegin handia egiten dabilta.

Baina areto futbola ezin da berdinetik berdiner borrokatu hamaikako futbolaren aurka. Udalaren kirol azpiegiturak denok erabiltzen ditugu, baina batzuek modu eskusiboan izaten dituzte erabilgarri, ia azpiegituren jabeak balira bezala; beste batzuek, aldiz, itzelezko zailtasunak dituzte, kirol anitzeko pistak direnez, banatu egin behar direlako. Areto futbol taldeek ez dute txartel lehiatilako diru sarre-rarik, publizitate eta babesleen sarrerak urriak dira, eta diru sarrearen atalik handiena jokalariek jarritakoa da. Federaziotik betebeharrak eskatzen dizkigute, nahiz eta ez ditugun eskubide berberak. Inork ez du zalantzan jartzen diskriminazio positiboaren alde egin behar dela emakumeen eskubideen, euskaren edo gutxitasunen bat duten pertsonen mesedetan. Zergatik ez eredu bera aplikatu areto futboleant?

Eskoziako eta Ingalaterrako ziklistak, Durangaldean

Hemengo txirrindularitza ezagutuko dute



Hemengo eta atzerriko txirrindulariak batera, Ezkurdi plazan.

> TXIRRINDULARITZA Ingalaterrako hiru txirrindularik eta Eskoziako zein Ameriketako Estatu Batuetako banak Durangaldean emango dituzte datozen aste biak, Duranguesa taldeak zazpigarrengez antolatu duen txirrindulari gazteen arteko trukearen harira. 16-18 urte artean dituzte guztiek.

Adin tarte bereko beste bost txirrindulari euskaldun, aldiz, Eskoziara eta Ingalaterrara joango dira. Era berean, Ingalaterrako talde bat eta Eskoziako selekzioa ere etorriko dira, eta juniorren Bizkaiko Itzulian lehiatuko dira datorren astean, Duranguesa elkartearen laguntza logistikoa.

Frades dominatit gertu, Munduko Txapelketan

Laugarren izan da Munduko Triatloi Txapelketan

>TRIATLOIA

Gurutze Frades iurretarrak beste lorpen handi bat gehitu dio bere sarien zerranda oparoari. Suediako Motala herrian jokatu den Distantzia Luze-ko Triatlaien Munduko ITU Txapelketan laugarren amaitu zuen, asteburuan. Munduko

Txapelketetan inoiz lortu duen posturik onena da: 2014an eta 2012an bederatzigarren bukatu zuen, eta 2013an zazpigarren.

Beste behin, atzetik aurrerako bidea egitea egokitu zitzaion. Igeriketa saioaren ostean, bizikletan eta korrika hainbat postu aurreratu zituen.



Azkenaldian, Fradesek Bilboko eta Zarauzko triatlaiak irabazi ditu.

A. Urreta
podólogo

Abinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behe - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, behe - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

Uda honetan PLATERUEN PLATERAK

• Bariku eta zapatu iluntzeetan •
20:00etatik 23:00etara



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN

- DURANGO: 1 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 550€tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

